## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

*26/2010 FORU DEKRETUA, urriaren 7koa, Hernaniko udalerrian Ereñotzuko toki entitate txikia eratzekoa.*

Hernaniko Udalak, 2006ko irailaren 15eko aparteko udal batzarrean, Ereñotzun udalarena baino lurralde eremu txikiagoko entitate bat eratzeko ekimena bultzatu zuen, 2003ko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Barrutiak arautzen dituenak, zehaztutako prozedurari jarraituz.

2007ko maiatzeko udal hauteskundeen ondoren udal korporazio berria eratu ostean, ekainean, espedientea aztertu eta jarraitzeko ardura izango zuen batzorde informatzailea osatu eta gero, 2009ko ekainaren 18ko ohiko bilkuran Udal Batzarrak onartu zuen «Ereñotzuko auzoan toki entitate deszentralizatua eratzeko komenigarritasunari buruzko prozesu zurigarriaren laburpena» izeneko dokumentua, eta erabaki zuen espedientea jendaurrean erakusgai jartzea hogeita hamar egunez.

Espedientea jendaurrean erakusgai jarri zen iragarpena udaletxeko iragarki taulan, 2009ko abenduaren 17ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 239 zbk., eta «El Diario Vasco», «Gara» eta «Berria» egunkarietan argitaratuz.

Erreklamaziorik jaso gabe jende aurreko erakustaldia amaitu ondoren, Hernaniko Udalak, 2010eko urtarrilaren 28an izandako ohiko batzarrean, aho batez, erabaki zuen Ereñotzuko toki entitate txikia eratzea eta, zuzeneko kontsulta bat eginez, toki entitate txikiaren lurralde esparruko hautesleen iritzi ez loteslea jakiteko prozesua hastea.

Kontsulta 2010eko martxoaren 28an egin zen. 483 hauteslek osatutako hauteskunde erroldatik 283 boto jaso ziren, hauetatik 270 Ereñotzuko toki entitate txikia eratzearen aldekoak eta 13 berriz kontrakoak.

Udalak tramitatu zuen espedientea Foru Aldundiari bidali zion behin betiko ebatzi zezan. Foru Aldundian 2010eko maiatzaren 4ko sarrera datarekin jaso zen espediente hori.

Udalez azpiko entitateak sortzea Gipuzkoako Udal Barrutiak arautzen dituen 2003ko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauan aurreikusten da, non ezartzen baitira bai jarraitu beharreko prozedura, baita zer baldintza bete behar dituzten bananduta dauden eta udalerri barruan ezaugarri bereziak dituzten biztanle guneek udalerria baino lurralde eremu txikiagoko entitateak eratu ahal izan ditzaten, hain zuzen ere honako hauek: Horretara bultzatzen duten inguruabar geografiko, historiko, sozial, ekonomiko edo administratiboak gertatzea; biztanle guneak bostehun biztanle baino gehiagoko zuzenbidezko biztanle kopurua izatea; entitatea eratzeak ez ekartzea biztanleei eskainitako zerbitzuetan kalitate galerarik eta entitateak behar beste baliabide izatea dagozkion xedeak bete ahal izateko.

Espedientea aztertu ondoren egiaztatuta gelditu da entitatea sortzeko prozedura arraitu dela eta Hernaniko udalerrian (Gipuzkoa) Ereñotzuko toki entitate txikia eratu ahal izateko 2003ko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Barrutiak arautzekoak, aurreikusten dituen nahitaezko baldintzak betetzen direla.

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

*DECRETO FORAL 26/2010, de 7 de octubre, por el que se crea la entidad local menor de Ereñotzu en el término municipal de Hernani.*

El Ayuntamiento de Hernani, en sesión plenaria extraordinaria celebrada el 15 de setiembre de 2006, ejerció, de acuerdo con el procedimiento establecido en la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de la Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa, la iniciativa para la constitución de una entidad de ámbito territorial inferior al municipio en el núcleo de Ereñotzu.

Celebradas las elecciones municipales de mayo de 2007 y constituida la nueva Corporación, en junio, tras crear una comisión informativa encargada del estudio y seguimiento del expediente, el pleno municipal, en sesión ordinaria celebrada el 18 de junio de 2009, acordó aprobar un documento denominado «Resumen del proceso justificativo sobre la conveniencia de constituir una entidad local descentralizada en el barrio de Ereñotzu» y someter el expediente a información pública por un plazo de treinta días.

El expediente fue expuesto al público mediante anuncios publicados en el tablón de edictos del Ayuntamiento, en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 239, de 17 de diciembre de 2009, y en los diarios «El Diario Vasco», «Gara» y «Berria».

Finalizado el período de información pública, sin que se produjeran reclamaciones, el Ayuntamiento de Hernani, en sesión plenaria ordinaria celebrada el 28 de enero de 2010 acordó, por unanimidad, aprobar la constitución de la entidad local menor de Ereñotzu e iniciar el procedimiento necesario para obtener la opinión no vinculante de los electores del territorio base de la entidad local menor mediante consulta directa.

La consulta tuvo lugar el 28 de marzo de 2010. De un censo electoral de 483 electores, se emitieron 283 votos, de los cuales 270 fueron a favor de la creación de la entidad local menor de Ereñotzu y 13 en contra de dicha creación.

Con fecha de registro de entrada en la Diputación Foral de 4 de mayo de 2010, el Ayuntamiento remitió el expediente tramitado en sede municipal para su resolución definitiva por la Diputación Foral.

La constitución de entidades locales menores está prevista en la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de la Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa, que establece tanto el procedimiento a seguir como los requisitos para que los núcleos de población separados, con características peculiares dentro del municipio, puedan constituir entidades de ámbito territorial inferior al municipio y que se concretan en los siguientes: Que concurran circunstancias de orden geográfico, histórico, social, económico o administrativo que lo requieran; que el núcleo cuente con una población de derecho superior a quinientos habitantes; que su constitución no comporte una pérdida de calidad en la prestación de servicios a sus habitantes y que la entidad cuente con recursos suficientes para el cumplimiento de los fines que le son propios.

Analizado el expediente se ha acreditado que se ha seguido el procedimiento de constitución y que concurren los requisitos necesarios previstos en la Norma Foral 2/2003, de de 17 de marzo, reguladora de la Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa, para poder crear la Entidad Local Menor de Ereñotzu en el municipio de Hernani del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Azaldutako guztia kontuan izanik, Lehendakaritzako eta Foru Administrazioko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau.

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. Eratzea.*

Ereñotzuko toki entitate txikia eratzen da Hernaniko udalerrian (Gipuzkoa).

*2. artikulua. Lurralde mugaketa.*

Ereñotzuko toki entitate txikia Hernaniko hegoaldean dago eta Gipuzkoako Astigarraga, Donostia, Errenteria, Urnieta eta Elduaien udalerriak ditu mugakide, baita Nafarroako Arano herria ere.

Ereñotzuko toki entitate txikiaren lurralde mugaketa eta mugak foru dekretu honen eranskinean jasotzen dira.

*3. artikulua. Gobernu organoak.*

Ereñotzuko toki entitate txikiak ondorengo gobernu organoak izango ditu:

a) Auzo-alkatetza, kide bakarreko organo gisa.

b) Auzo-batzarra, kide anitzeko organo gisa, auzo-alkateak eta 4 kidek osatua.

*4. artikulua. Eskumen propioak.*

Ereñotzuko toki entitate txikiak ondorengo eskumenak izango ditu:

a) Bere ondarea administratzea eta zaintzea.

b) Mendi eta landa garapena: Etxe eta baserrietara iristeko landa-bideen eta mendiko herri-bideen mantentze-lanak.

c) Herriaren mantentze-lanak: Leku publikoen eta urbanizazioen mantentze-lanak, lorazaintza lanak.

d) Toki entitate txikiko eraikinen mantentze-lanak, garbiketa eta zaintza.

*5. artikulua. Ondarea.*

Ereñotzuko toki entitate txikiaren ondarea Hernaniko Udal Batzarrak 2010eko urtarrilaren 28ko ohiko bilkuran onartutakoa izango da, foru dekretu honen eranskinean jasotzen dena.

*6. artikulua. Aurrekontu esleipenak.*

Ereñotzuko toki entitate txikiak Hernaniko Udaletik jasoko ditu 2010eko urtarrilaren 28ko ohiko bilkuran Udal Batzarrak hartutako akordioan aurreikusitako aurrekontu esleipenak, foru dekretu honen eranskinean jasotzen direnak.

*Lehen xedapen gehigarria.*

Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatuko ditu eratzen denetik hurrengo udal hauteskundeetara bitartean toki entitate txikia zuzenduko duen batzorde kudeatzailearen kideak.

*Bigarren xedapen gehigarria.*

Batzorde kudeatzailea eratu ondorengo bi hilabeteko epean eginak egon behar dute foru dekretu honek eraginkortasun osoa izan dezan beharrezkoak diren diru transferentziak, ondasun emateak eta bestelako jarduerak.

En virtud de lo expuesto, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Presidencia y Administración Foral, previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en sesión del día de la fecha.

DISPONGO

*Artículo 1. Creación.*

Se crea la Entidad Local Menor de Ereñotzu en el término municipal de Hernani del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*Artículo 2. Límite territorial.*

La Entidad Local Menor de Ereñotzu se sitúa al sur del municipio de Hernani y limita con los municipios guipuzcoanos de Astigarraga, Donostia-San Sebastián, Errenteria, Urnieta y Elduaien, y el municipio navarro de Arano.

La delimitación territorial de la Entidad Local Menor de Ereñotzu y sus límites serán los que se describen en el anexo al presente Decreto Foral.

*Artículo 3. Órganos de gobierno.*

Los órganos de gobierno de la Entidad Local Menor de Ereñotzu serán los siguientes:

a) La Alcaldía Pedánea, como órgano unipersonal.

b) La Junta Vecinal, como órgano colegiado, compuesta por el alcalde/ la alcaldesa pedánea y cuatro vocales.

*Artículo 4. Competencias propias.*

La Entidad Local Menor de Ereñotzu tendrá las siguientes competencias:

a) Administración y conservación de su patrimonio.

b) Desarrollo rural y de montes: Trabajos de mantenimiento de caminos públicos de montaña, caminos rurales para llegar a casas y caseríos.

c) Mantenimiento urbano: Trabajos de mantenimiento de espacios públicos y urbanizaciones, trabajos de jardinería.

d) Mantenimiento, limpieza y guarda de los edificios de la Entidad Local Menor.

*Artículo 5. Patrimonio.*

El patrimonio de la Entidad Local Menor de Ereñotzu lo constituirá el determinado por acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Hernani en sesión ordinaria celebrada el día 28 de enero de 2010 y que se recoge en el anexo al presente Decreto Foral.

*Artículo 6. Asignaciones presupuestarias.*

La Entidad Local Menor de Ereñotzu percibirá del Ayuntamiento de Hernani las asignaciones presupuestarias previstas en el acuerdo del Pleno aprobado en sesión ordinaria celebrada el día 28 de enero de 2010 y que se recogen en el anexo al presente Decreto Foral.

*Disposición adicional primera.*

La Diputación Foral de Gipuzkoa designará los miembros de la Comisión Gestora que regirá la nueva entidad local menor durante el período que medie entre la constitución de ésta y la celebración de las siguientes elecciones locales.

*Disposición adicional segunda.*

En el plazo de dos meses, a contar desde la constitución de la Comisión Gestora, deberán de estar realizadas las transferencias económicas, entregas de bienes y cuantas actuaciones sean necesarias para la completa efectividad de este Decreto Foral.

*Amaierako xedapen bakarra. Indarrean jartzea.*

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Administrazio-bidea amaitzen duen foru dekretu honen aurka interesatuek Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan (Bilbo) bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2010eko urriaren 7a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

LEHENDAKARITZAKO ETA FORU
ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Edurne Egaña Manterola.

(887) (11605)

*Disposición final única. Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Contra el presente Decreto Foral, que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas podrán interponer directamente Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante el Consejo de Diputados, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Donostia-San Sebastián, a 7 de octubre de 2010.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

LA DIPUTADA FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
PRESIDENCIA Y ADMINISTRACION FORAL,
Edurne Egaña Manterola.

(887) (11605)

ERANSKINA

## LURRALDE MUGAKETA

Ereñotzuko toki entitate txikiaren lurralde mugaketa eta mugak honako hauek dira:

Iparraldean: Ukaleneko gaina inguruan 03390a lursailarekin egiten du muga, eta 03143d eta 03143a lursailen mugatik lerro zuzenean Errollaburuko auzo-bideraino jarraitzen du. Errollaburu auzo-bidetik Añoagaineraino. Handik, lerro zuzenean, 03438, 03152 eta 03339 lursailak zeharkatzen ditu, denak ere mugatik, Epelako auzo-bideraino. Epelako auzo-bidetik jarraituta Añoaberri baserri aldera Astigarragako mugaraino. Epelerrekatik, Ereñotzuk iparraldean Donostiarekin (Landarbaso) eta Astigarragarekin egiten du muga.

Ekialdean Errenteriarekin, Donostiarekin (Oberan) eta Aranorekin egiten du muga.

Hegoaldean Elduaienekin egiten du muga.

Mendebaldean Urnietarekin, Oindi mendiraino. Oindi menditik 05086, 05085, eta 05014 lursailen mugatik Saratzaineko auzo-bideraino jarraitzen du. Saratzaineko auzo-bidetik iparraldera jarraitzen du, Iturri errekarekin gurutzatu arte. Iturri errekatik 05283, 05264 eta 05261 lursailen erditik zeharkatzen du mugak, eskuineko aldean Añarregi eta Okendonea baserriak gelditzen direla, eta Lastaola-Iparburu auzo-bideraino iristen da. Puntu horretatik aurrera Elorribiko zuloa ibaiaren ibilgua jarraitzen du eta Elorribietxeberri udal bideraino iritsitakoan bide horretatik jarraitzen du Lanberri Indarretxe ingururaino. Hortik, 05441 eta 05160 lursailak mugatik ipar alderantz gurutzatuta, Urumea ibaia zubian barrena gurutzatu eta Ibarluze poligonoa zeharkatzen du, eskuin aldean Eguzkitza baserria gelditzen dela.

ANEXO

## DELIMITACIÓN TERRITORIAL

La delimitación territorial de la Entidad Local Menor de Ereñotzu y sus límites serán los siguientes:

Por el Norte: Linda en la zona de Ukaleneko gaina con la parcela 03390a, siguiendo por el límite de la parcela 03143d y 03143a en línea recta hasta el camino vecinal Errollaburu. Continúa por el camino vecinal Errollaburu hasta llegar a Añoagain. Una vez aquí en línea recta atraviesa las parcelas 03438, 03152, 03339, todas ellas por su límite llegando al camino vecinal Epele. Se continúa el camino vecinal Epele hacia el caserío Añoaberri hasta el límite con el término de Astigarraga. Desde Epelerreka, Ereñotzu linda en su Norte con los términos de Donostia–San Sebastián (Landarbaso) y Astigarraga.

Al Este: Linda con los términos municipales de Errenteria, Donostia-San Sebastián (Oberan) y Arano.

Al Sur: Linda con el término municipal de Elduaien.

Y al Oeste con el término municipal de Urnieta hasta el monte Oindi. Desde el monte Oindi sigue por el límite de las parcelas 05086, 05085, 05014 hasta llegar al camino vecinal Saratzain. Se continua el camino vecinal Saratzain dirección Norte hasta cruzar con Iturri erreka. Desde Iturri erreka se atraviesa por el medio de las parcelas 05283, 05264 y 05261 quedando a la derecha los caseríos Añarregi y Okendonea, se llega hasta el camino vecinal Lastaola-Iparburu. A partir de este punto continúa el cauce del río Elorribiko zuloa y una vez llegado al camino municipal Elorribietxeberri, continúa por el camino hasta el área de Lanberri/Indarretxe. Desde este punto cruzando por el límite en dirección Norte las parcelas 05441 y 05160, cruza el río Urumea por el puente y atraviesa el Polígono Ibarluze quedando a la derecha el caserío Eguzkitza.

ONDAREA

Eskualdatuko diren ondare-ondasunen zerrenda, «Ereñotzuko bailaran Toki Entitate deszentralizatu bat eratzeko egokitasunari buruzko memoria» izeneko dokumentuaren 37, 38 eta 39. orrialdeetan adierazitako ezaugarri eta xehetasunen arabera (dokumentu hau Hernaniko Udal Batzarrak 2010eko urtarrilaren 28ko ohiko bilkuran onartu zuen):

— Bolatokia.

— Ur biltegia.

— Ikastola.

— Ereñotzu buru lursaila.

— Ereñotzuko lursaila.

— Ereñotzuko lursaila.

— Parke (ermita ipar aldea).

— Parke (ermita hego aldea).

— Kirol gunea.

— Eskolako aurrefabrikatuen lursaila.

— Epelako parkea.

— Telebistako errepikagailua.

— Altunako bidea.

— Fagollagako bidea.

— Usategietako bidea.

— Errolaburuko bidea.

— Añoako bidea.

— Larregaineko bidea.

— Igorineko bidea.

— Akolako bidea.

— Alkatxuraineko bidea.

— Izenederreko bidea.

— Artegietako bidea (Txabolategiko eta Lizarregiko bideak).

— Lizarregiko bidea.

— Aparraineko bidea.

— Igarolako bidea (Etxolaberri).

— Urmendiko bidea.

— Bideak.

AURREKONTU ESLEIPENA

Udalak egin beharreko ekarpen ekonomikoa:

a) Urteko diru ekarpen arrunta: Hernaniko Udalak onartzen duen aurrekontuaren arabera kalkulatuko da; ponderazio indize bat aplikatuko zaio Ereñotzuko biztanleriaren bilakaeraren arabera. Gastuen kapituluetan ehuneko hauek aplikatuko dira:

— Pertsonal gastuak (I. kapitulua): Onartzen den aurrekontuaren %0,7.

— Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak (II. kapitulua): Onartzen den aurrekontuaren %1,70.

— Udal eremuko entitate autonomoetarako transferentzia arruntak (bakarrik IV. kapituluaren 431 artikulua): Onartzen den aurrekontuaren %0,50.

PATRIMONIO

Relación de los bienes patrimoniales a traspasar, de conformidad con las características y detalle que se señala en las páginas, 37, 38 y 39, del documento denominado Memoria justificativa de la conveniencia de constituir una entidad local descentralizada en Ereñotzu», aprobado por acuerdo de Pleno del Ayuntamiento de Hernani en sesión ordinaria celebrada el día 28 de enero de 2010:

— Bolera.

— Depósito de agua.

— Ikastola.

— Parcela Ereñotzu buru.

— Parcela en Ereñotzu.

— Parcela en Ereñotzu.

— Parque (Norte Ermita).

— Parque (Sur Ermita).

— Zona deportiva.

— Parcela de los prefabricados de la escuela.

— Parque Epele.

— Repetidor televisión.

— Camino de Altuna.

— Camino de Fagollaga.

— Camino de Usategieta.

— Camino de Errolaburu.

— Camino de Añoa.

— Camino de Larregain.

— Camino de Igorin.

— Camino de Akola.

— Camino de Alkatxurain.

— Camino de Izeneder.

— Camino de Artegieta (caminos de Txabolategi y de Lizarregi).

— Camino de Lizarregi.

— Camino de Aparrain.

— Camino de Igarola (Etxolaberri).

— Camino de Urmendi.

— Viales.

ASIGNACIONES PRESUPUESTARIAS

Aportación económica a realizar por el Ayuntamiento:

a) Aportación económica ordinaria anual: Se calculará a partir del presupuesto aprobado del Ayuntamiento de Hernani, al que se aplicará un índice de ponderación según la evolución de la población de Ereñotzu. Se aplicarán los siguientes porcentajes según los diversos capítulos de gasto:

— Gastos de personal (Capítulo I): 0,7% del presupuesto aprobado.

— Gastos en bienes corrientes y servicios (Capítulo II): 1,70% del presupuesto aprobado.

— Transferencias corrientes para entidades autónomas de ámbito municipal (únicamente el artículo 431 del capítulo IV): 0,50% del presupuesto aprobado.

— Inbertsio errealak (VI. kapitulua): Onartzen den aurrekontuaren %2.

— Inbertsioetarako urteko kopuru finkoa: 30.000 euro.

Ereñotzuko biztanleriaren araberako ponderazio indizea: Ereñotzuko biztanleria urtean handitzen edo txikitzen den puntu bakoitzarengatik puntu laurden bat handitu edo txikituko da ekarpen hau.

b) Diru laguntza berezietarako ekarpen ekonomikoa: Udalez peko erakundearen eta Hernaniko Udalaren artean adostutako ekarpen ekonomikoak, auzoko inbertsio edo egitasmo bereziei aurre egitekoak, inbertsio eta egitasmo horiek Udalak baino toki entitateak berak kudeatzea eta kontratatzea egokiago jotzen den kasuetan.s

— Inversiones reales (Capítulo VI): 2% del presupuesto aprobado.

— Importe fijo anual para inversiones: 30.000 euros.

Índice de ponderación según la evolución de la población de Ereñotzu: Esta aportación se incrementará o reducirá en un cuarto de punto por cada punto en que se incremente o reduzca anualmente la población de Ereñotzu.

b) Aportación económica correspondiente a subvenciones extraordinarias: Aportaciones económicas acordadas entre la Entidad Local y el Ayuntamiento de Hernani, para hacer frente a inversiones y proyectos extraordinarios en el barrio, en aquellos casos en que se considere más adecuado que sea la misma Entidad Local la que gestione y contrate dichas inversiones o proyectos.